


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,5 jaitsi dira 2021eko azaroan

Urte arteko terminoetan, kostuak % 4,4 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,5 jaitsi da 2021eko azaroan, aurreko hilaren aldean. Aurreko urteko hil berarekin alderatuta (2021eko azaroa, 2020ko azaroarekin alderatuta), kostuak % 4,4 hazi dira.

Etzegintzaren sektoreko kostuak % 0,3 jaitsi dira hil artean, eta Obra Zibilekoak % 1,3. 2020ko azaroarekin alderatuta, prezioak % 4,1 igo dira Etzegintzaren kasuan eta % 5,7 Obra Zibilarenean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2021eko urriaren, aldean, **lehengaien** kostuak % 0,7 jaitsi dira, eta **eskulanaren** kostua, berriz, bere horretan mantendu da (% 0,0). Urteik urterako terminoetan, lehengaien kostuak % 5,2 egin du gora, eta eskulanarenak, berriz, % 1,9.

Etxegintzaren sektoreak % 0,4ko hil arteko jaitsiera izan du bere lehengaien kostuan. Obra Zibilean, berriz, jaitsiera % 1,7koa izan da. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 4,8 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 6,9.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021eko azaroa

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	110,1	-0,5	4,4
Eraikinak	110,0	-0,3	4,1
Obra zibila	110,1	-1,3	5,7
LEHENGAI	110,0	-0,7	5,2
Eraikinak	110,0	-0,4	4,8
Obra zibila	110,1	-1,7	6,9
LAN-ESKUA	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioari doakionez, honako hauek izan dira hazkunderik handienak izan dituztenak 2021eko azaroan, 2020ko azaroaren aldean: *Petrolio* (48,8%), *Metalurgia* (27,8%) eta *Energia elektrikoa eta gasa* (21,3%). Aitzitik, prezioetan jaitsierarik izan duen sektore bakarra *Mineral ez-metaliko* izan da, % 1,1 behera egin duena.

Urte arteko hazkunde-tasak kontsumitutako lehengaien prezioetan (p). 2021eko azaroa

	m / m-12
A64 SEKTORIZAZIOA	
04 - Ez-metalezko meak	-1,1
07 - Zuraren eta kortxoaren industria	9,9
10 - Petrolioaren finntzea	48,8
11 - Industria kimikoa	13,9
13 - Kautxua eta plastikoa	1,4
14 - Produktu mineral ez-metalezkoak	6,9
15 - Metalurgia	27,8
16 - Metalezko artikulak	4,4
17 - Material elektronikoa	7,3
18 - Material elektrikoa	2,5
19 - Makineriaren fabrikazioa	2,5
22 - Altzarigintza	3,4
24 - Energia elektrikoa eta gasa	21,3

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62